

SAN ANDRES XXXI. BAKAILAO LEHIAKETA, EIBARKO UDALAK antolatua, ALKORTA ANAIK, SOLERA EIBARRESA, INOXIBAR ETA URZANTE OLIOAK laguntzarekin.

OINARRIAK

1. Noiz izango da: **2025eko AZAROaren 23an (igandea).**
2. Lanean hasteko ordua: **11:00.**
3. Lehiaketa **12:30**ean amaituko da.
4. Non: **Untzagan**
5. Eibarren dauden elkarteek, beste herrialde batzuetako etxeek edota lagun-taldeek har dezakete parte.
6. Talde bakoitza bi lagunek osatuko dute; baina sukaldari zaletuak izan behar dute, eta ez profesionalak edo hortaz bizi direnak. Bikoteko kide batek Eibarren erroldatuta egon behar du.
7. Izena emateko epea **2025eko azaroaren 1ean hasiko da eta azaroaren 10ean amaituko da.**
8. Lehiaketan parte hartzeko bikote bakoitzak formularioa bete behar du (Klikatu estekan formulario betetzeko):
 - Formulario bidez: <https://formularioak.eibar.eus/eu/bakailaolehiaketa2025>
9. Gehien jota **38 bikote**. Izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko partehartzaile-kopurutik gorakoa bada, aukeraketa **zozketa** bidez egingo da Udaletxeko Pleno Aretoan azaroaren 14an, 11:00etan.
10. **Antolakuntzak jarritako osagaiak** —bi kilo bakailao eta olio birjina estra,— **Untzagan jasoko dira lehiaketa egunean bertan, 10:30ean** eta parte hartzaileek **30 euroko kuota** ordainduko dute izena emateagatik.
11. Lehiaketa egunean, taldeek **10:30**ean egon beharko dute **Untzagan**, postuak banatzeko.
12. Parte hartzaileek berakatzak ekarri beharko dituzte, eta pipermina eta gatza ere onartuko dira. Bakailaoa prestatzeko behar diren tresnak, kazuela barne, bikote parte hartzaileek ekarriko dituzte; saltsa egiteko tresnak ere erabili ahalko dira, hala nola hagaxkak edo barillak, iragazkiak... Bakailaoa pil-pilean eginda entregatuko da. Antolakuntzak emandako 2 kiloak prestatu beharko dituzte bikote parte hartzaileek, ezkatak kendu ondoren.
13. Epai-mahaia sukaldari ezagunez osatua egongo da.
14. **Sari** hauek banatuko dituzte:
 - **1º. Garaikurra, txapelak, 300 €, eta Alkorta Anaiak, Urzante Olioak eta Vinos Solera eibarresa** etxeek emandako produktuak.
 - **2º. Garaikurra, 200 €, Alkorta Anaiak, Urzante Olioak eta Vinos Solera eibarresa** etxeek emandako produktuak.
 - **3º. 100 €, Urzante Olioak eta Vinos Solera eibarresa** etxeek emandako produktuak.
15. Epai-mahaiak erabakitakoa apela-ezina izango da.
16. Lehiaketan izen-emateak lehiaketaren oinarriak eta epaimahaikideen erabakia onartzea suposatzen du.